



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko martxoaren 7ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko martxoaren 7an, arratsko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behar izan duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik.

**Hor zirenak** : CASIRIAN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Ifaki, IDIART Claudine, INARRA François, IRIART Jean Claude, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENSA Elodie

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, HEGUY Antton, JORAJURIA Ramunbixu.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : DACHAGUER Peio

**Deialdiaren eguna** : 2023ko martxoaren 3a

**Afribatze eguna** : 2023ko martxoaren 3a

### 13. ERABAKIA: BEHIN BEHINEKO ENPLEGU BATEN SORTZEA DENBORA OSOKO TEKNIKARI LAGUNTZAILE BEZALA (4.2.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio martxoaren 17ko orkestra sinfonikoaren kontzertuaren karterara eskola publikoko haurrak garrilatzeke denbora ez osoko teknikari laguntzaile lanpostu ez iraunkorra sortzea. Haurren garrailoa 2023ko martxoaren 17an eginen da, ostiralarekin, 14:30etatik 16:15ak arte.

Enplegua 2023ko martxoaren 17ko egunarentzat sortu da.

Lan denbora 45 minutura finkatua da.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1º artikularen xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baitute kontratupekoak kontratatzea behin behineko jarduerara emendatzei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez eta 12 hilabeteko denbora meta daitkeelarik.

Enpleguari 387ko indize gordina aplikatu daki.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarra:

ERABAKI DU - 2023 martxoaren 17rako, denbora ez osoko teknikari laguntzaile lanpostu ez iraunkorra sortzea, oren bat eta 45 minutuko iraupenekoa,

- enplegu horrek 387ko indize gordinari dagokion sarria izanen duela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari eranskinean den lan kontratuaren izenpetzeko

ONARTU DITU, Auzapezaren proposamen guztiak.

ZEHAZTU DU, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

Biltzarkideen kopurua: 15

Presente diren herri biltzarkideak: 11

Bozka kopurua: 11

ALDE: 11

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean deliberaturik, Presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatua baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko martxoaren 13an  
Auzapeza,

Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/03/14an publikatu edo notifikatu ondoren,  
Eta Prefeturan pausatu ondoren 2023/03/14an.